ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2016ko uztailaren 29a, ostirala • 85 zk.

V - BESTELAKOAK

URAREN EUSKAL AGENTZIA

Ebazpena, 2016eko uztailaren 18koa, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiarena, "Vitoria-Gasteizen, Forondako aireportua Zaia ibaiaren uholdeetatik babesteko proiektua" jendaurrean jartzeko izapidea ebatzi eta behin betiko onespena ematen diona

Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiak 2015eko urriaren 6an emandako Ebazpenaren bitartez, "Vitoria-Gasteizen, Forondako aireportua Zaia ibaiaren uholdeetatik babesteko proiektua"-ri hasierako onespena eman zitzaion eta kontsultarako jendaurrean jarri zen.

Ebazpen hau ALHAOn argitaratu zen 2015ko urriaren 14an eta agerian egon zen. Behin jendaurrean jartzeko epea bukatuta, 42 alegazio aurkeztu dira, Uraren Euskal Agentziak guztiak erantzun dituela eta alegazioa egin dutenei bidali zaiela.

Halaber, proiektua aztertu eta aldeko txostena emanda dago, teknikoki zuzena dela eta alorreko legeri berezia betetzen duela egiaztatu da, bai eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 123. artikulua eta indarrean dauden bestalako legezko xedapenak.

2010ko ekainaren 29ko Administrazio Kontseiluaren saioan emandako eginkizunen eskuordetza betez, Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legeko 13 f) artikuluari jarraituz, lege bereko 15 m) artikuluaren eta Agentziako 7.2 p) artikuluaren arabera, zuzendari nagusiari dagokio proiektu honen onespena.

Hori aintzat harturik, jendaurrean jartzeko izapidea ebatzi eta behin betiko onespena eman behar da.

Horiek horrela, aipatutako xedapenak, horiekin bat datozenak eta aplikatu beharreko gainontzekoak ikusirik,

Ebazten dut

Lehen. "Vitoria-Gasteizen, Forondako aireportua Zaia ibaiaren uholdeetatik babesteko proiektua" jendaurrean jartzeko izapidea ebaztea.

Bigarren. Jendeaurrean jartzeko izapidean aurkeztutako alegazioak zati batean onetsi, hauen gainean egindako eta administrazio-espedientean sartutako txostenetan adierazi diren kontsiderazioak kontuan izanik.

Hirugarren. "Vitoria-Gasteizen, Forondako aireportua Zaia ibaiaren uholdeetatik babesteko proiektua"-ri behin betiko onespena ematea.

Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legeko 6.4 artikuluari jarraituz, ebazpen honen kontra jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Ingurumen eta Lurralde Politikako saliburuari, ebazpena jakinarazi eta argitaratu egunaren biharamunetik hasita, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko uztailaren 18a

Uraren Euskal Agentziaren Zuzendari nagusia
IÑIGO ANSOLA KAREAGA

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, OU=ZIURTAGIRI ONARTUA - CERTIFICADO RECONOCIDO, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 108817
Fecha de firma: 2016.07.29 05:13:29 Z